



XABIER LETONAREN ANALISIEI AGUR ETA OHORE

Gazteluko Plazatik dator notizia



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lerro hauek irakurtzen dituzunerako zenbat aldiz erreparatuko ote zenuen aldizkaria, iraileko lehen zenbakian topatu ez zenuen “Gazteluko Plazatik” atal preziatua oraingoan aurkituko duzunaren esperantza txiki batekin. Imajinatzen zaitut, lagun, orriak alde batera eta bestera, urduritasun puntuari tristura gailendu zaion arte, bigarrenez; jabetu baitzara zenbaki honetan ere ez dato-rra Letonaren analisirik.


Segarekin ez, baina igitaiarekin datorenaren paperean jartzea tokatu zait, eta albistea eman behar dut: euskaldunok, “Gazteluko Plazatik” hil da. Tira, hil... agian bortitzegia da; atala bera bukatu da, baina Xabier Letonak bere zorrotasunez jarraituko du *Larrunen* ez bada elkarriketa edo erreportajeren batean orri hauek bete eta irakurleia asetzen.

Sasi-kazetari gazteari beti iruditu zaio politikaz egindako analisiak idaztea ausarta, zaila, eta galdetu dio Letonari, jakin minez, berak nola lortu duen gai eta

garai zakarrenetan ere arinkerian geratu gabe zorrotasunez idatzi eta aldi berean oreka mantentzea. Erantzunak datorren generazioari emandako gomendioa gehiago dirudi: norberaren askatasunean sinetsita, inguruko, lankideen ikuspegia kontutan hartuta, lehen helburua irakurleia izanda, eta noski, idatzita eta idatzita.

Gazteak irakurri ditu azken artikulua eta badaki hamar urte hauetan berak hartu duela analisi politikoaren ardurara ARGIAN. “Hori ez da konfiantzarekin bakarrik egiten”, pentsatu du. Letonak urteen poderioz lortu du askatasuna, baina baita informazioa ere. Garrantzitsuena lortu du, ordea, informazio hori gutzia interpretatzen jakin eta irakurleari modu erosoan adieraztea.

Letonak aurreko kazetariren bati hartuko zion testigua, eta orain berari tokatuko zaio besteren baten eskuetara pasatzea. Karpeta hori itxi da. Baina fase horri agur baino fase berriari ongi etorria ematea tokatzen da orain. ■



Urriaren 1ean Ondarroan: zatoz ARGIA Egunera!

Aurtengoan larunbatez ospatuko dugu ARGIA Eguna, Ondarroan, “Puntadaz puntada txikitik eragiten” lelopean.

Bezperatik joan nahi duenak ere aurkituko du festarik: *Trantsizioak* erakusketa ikusgai egongo da eta gauean kontzertuak izango dira ranpan.

ARGIA Eguna 10:00etan ibilaldi gidatua eginez hasiko dute goiztiarrenek, eta egunean zehar izango dira jolas hezitzaileak, eragileen azoka, herri bazkaria, kale animazioa, Olinpiada desobedienteak, kontzertuak...

Argiazaleen Topaketan aukera izango duzu ARGIAN lantzen ari garen harpidezko eredu berritua lehen eskutik ezagutzeko eta ekarpenak egiteko.

Ez galdu aukera balioetan oinarritutako festa egin eta zu bezalaxe argiazaleak direnak ezagutzeko!

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Asteleheneretan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.